Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

4957

AGINDUA, 2010eko uztailaren 22koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Igon-Igon Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Bilboko (Bizkaia) «Fundación Igon-Igon Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Ignacio María Iturbe Echevarría, Elena Felicitas Garcia Lebrero, Jone Miren Goricelaia Ordorika, Marta Manzanares Pelaz, Miren Edurne de Eguileor Ituarte, Manuel Riera García eta Maria Olga Zuloaga Arcocha jaun-andreek, euren izenean eta Igon CEE, SLren izenean, «Fundación Igon-Igon Fundazioa» osatu dute EAEko Elkargoko notario Manuel Garcés Perezek 2009ko martxoaren 3an emandako eskritura publikoaren bidez (protokolo zenbakia: 245).

Eskritura hori 2009ko martxoaren 6an jaso zen Eusko Jaurlaritzako Fundazioen Erregisgroan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2009ko azaroaren 23an Fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen.

2.– «Fundación Igon–Igon Fundazioa»ren sorrera helburua bere estatutuetako 6. artikuluan –titulu publikoari erantsitakoan– jasotakoa da:

«Desgaitasun fisikoak edota sentsorialak dituztenen arazoak atenditu, harik eta eurak guztiz gizarteratu eta laneratzea lortu arte.

Helburu zabal horien barruan, honako ekintza garrantzitsu eta berehalako hauek gauzatuko ditu:

1) Desgaitasun fisikoa duten pertsonei arreta eskaini, zerbitzua eman eta informatu prestakuntzako, okupazioko, enpleguko eta egoitzako jarduerak garatuz; eta pertsona horiei laguntza psikologikoa eman, hala behar izanez gero.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

4957

ORDEN de 22 de julio de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Igon-Igon Fundazioa».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Fundación Igon-Igon Fundazioa», de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por D. Ignacio María Iturbe Echevarría, doña Elena Felicitas Garcia Lebrero, doña Jone Miren Goricelaia Ordorika, doña Marta Manzanares Pelaz, doña Miren Edurne de Eguileor Ituarte, don Manuel Riera García y doña Maria Olga ZuloagaArcocha en su propio nombre y en el de la entidad Igon CEE, S.L., se ha constituido la denominada «Fundación Igon-Igon Fundazioa» mediante Escritura pública de constitución otorgada el 3 de marzo de 2009, ante el Notario del Ilustre Colegio del País Vasco, D. Manuel Garcés Perez, con el número 245 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada en el Registro de Fundaciones del Gobierno Vasco el 6 de marzo de 2009.

Reunida la Comisión técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 23 de noviembre de 2009 informe favorable a su inscripción.

2.– El fin fundacional de la denominada «Fundación Igon-Igon Fundazioa» viene establecido en el artículo 6 de sus Estatutos, incorporados al título público y es el siguiente:

«Atención de los problemas de las personas con discapacidades físicas y/o sensoriales, hasta conseguir su plena integración social y laboral.

Dentro de estos objetivos tendrá como actividades concretas más importantes e inmediatas las siguientes:

1) La atención, servicio e información a las personas con discapacidad física, desarrollando actividades de formación, ocupacionales, de empleo y residencia, así como dotar a dichas personas de servicio de asistencia psicológica si fuera necesario.

2) Minusbaliadunen aldekoak izan eta erakunde publiko zein pribatuetatik datozen programak kudeatu, izan Espainiako Estatutik, Europako Batasunetik edo Latinoamerikatik etorritakoak.

3) Munduan zehar diren desgaitasun fisikoko eta sentsorialeko erakundeekin batera lan egin.

4) Desgaitasun fisikoa edo sentsorial duten pertsonentzat zerbitzuak sustatzea, eta laneko errehabilitazioa lortzen, mugikortasuna hobetzen eta oztopo fisiko eta sozialak gainditzen lagunduko duten jarduerak burutzea.

5) Enpresak sortzea, zeinen gizarte-helburua bat datorren Fundazioaren helbururik nagusienarekin, eta zeinen helburua ere baden desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta lanean hasteko aukerak eskaintzea.

6) Era guztietako jarduerak burutzea, zeinen helburua izango baita hezkuntza, kultura, kirola, arteak eta zientziak suspertzea, eta laguntza ematea pertsona fisiko eta sentsorialek euren oporraldietan goza dezaten.

7) Ildo berekoak izan eta Fundazioaren helburua betetzen lagunduko duten aldizkari eta argitalpenak editatzea.

8) Izaera publikokoak edo pribatukoak izanik Fundazioaren helburua betetzen lagun dezaten pertsona edota erakundeen aldeko bekak, laguntzak eta sariak sustatzea.

9) Fundaziorako errekurtsoak eskuratzeko jarduerak gauzatzea.

10) Fundazioaren helburuak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein».

3.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikuluan jartzen denez, hau da: Ripa kalea, 7, Bilbao (Bizkaia).

4.– Hasierako diru-hornidura hirurogei mila (60.000) eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela ersasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran eta estatutuetako 10. artikuluan ezartzen denez, hauek izango dira:

2) Gestionar programas que provengan de cualquier entidad pública o privada, tanto del Estado español como de la Unión Europea o Latinoamérica en beneficio de las personas con minusvalías.

3) Cooperar con organizaciones de discapacitados físicos y/o sensoriales de todo el mundo.

4) Promover la prestación de servicios a las personas con discapacidad física y/o sensorial y la realización de actividades que contribuyan a lograr la rehabilitación laboral, la mejora de movilidad y la eliminación de barreras físicas y sociales.

5) La creación de empresas cuyo objeto social coincida con el fin principal de la fundación, encaminadas a la mejora de la calidad de vida de las personas con discapacidad física y a promover su incorporación en el mundo laboral.

6) La realización de actividades de todo tipo que fomenten la educación, la cultura, el deporte, las artes, las ciencias y ayuden al disfrute de los periodos vacacionales de las personas con discapacidades físicas y /o sensoriales.

7) La edición de revistas y publicaciones relacionadas y que ayuden a llevar adelante el objeto de la Fundación.

8) La promoción de becas, ayudas, premios a personas y/o entidades que, de carácter público o privado ayuden a la realización del fin de la Fundación.

9) La realización de actividades que permitan allegar recursos a la Fundación.

10) Cualesquiera otras que puedan ser conducentes a la realización de sus finalidades propias.»

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, radicará en la calle Ripa n.º 7 de la localidad de Bilbao (Bizkaia).

4.– La dotación inicial comprende la cantidad de sesenta mil (60.000) euros. Se acredita documentalmente la realidad de dicha aportación en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 9 y 12 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 10 de los Estatutos, está integrado por:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	Marta Manzanares Pedraz	Mugagabea
Lehendakariordea	Maria Olga Zuluaga Arcocha	Mugagabea
Idazkaria	Miren de Eguileor Ituarte	Mugagabea
Bokala	Manuel Riera García	Mugagabea
Bokala	Elena Garcia Lebrero	Mugagabea
Bokala	Ignacio María Iturbe Echevarría	Mugagabea
Bokala	Jone Miren Goiricelaia Ordorika	Mugagabea

Cargo		*Duración*
Presidenta	*Doña Marta Manzanares Pedraz*	*Indefinida*
Vicepresidenta	*Doña Maria Olga Zuluaga Arcocha*	*Indefinida*
Secretaria	*Doña Miren de Eguileor Ituarte*	*Indefinida*
Vocal	*D. Manuel Riera García*	*Indefinida*
Vocal	*Doña Elena Garcia Lebrero*	*Indefinida*
Vocal	*D. Ignacio María Iturbe Echevarría*	*Indefinida*
Vocal	*Doña Jone Miren Goiricelaia Ordorika*	*Indefinida*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Todos ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y siguientes del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-272 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) «Fundación Alkartasuna Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 22a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-272, de la constitución de la denominada «Fundación Igon–Igon Fundazioa», de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 4.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme a lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de julio de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.